

## IRIZPENA 16/09

Maite Alonso, lehendakaria  
Igone Abio  
Juan Carlos Jauregui  
Isabel Kapanaga  
Mari Tere Ojanguren  
Antxon Rodríguez  
Eva Blanco, (Idazkari teknikoa)

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko urriaren 25eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda onartzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

### I.- AURREKARIAK

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak arautzen du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna. Hezkuntza premia berezien multzoan sartzen dira laguntza eta arreta berezia behar duten ikasleak (2. artikulua), ezgaitasun bat edo portaera nahaste larri bat dutelako. Profesional anitzez osatutako taldeak (h.p.b. aholkulariak) zehaztuko ditu beharrezko diren laguntza osagarriak (4.4 artikulua). Funts publikoen bidez sostengatutako ikastetxeetan dauden eta h.p.b. dituzten ikasleek Hezkuntza Saitetik jasoko dituzte beren premia espezifikoei arreta emateko behar dituzten baliabide eta bitarteko materialak (9. artikulua).

1998ko uztailaren 30eko Aginduak 118/1998 Dekretuaren garapenean ezartzen ditu h.p.b. dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak eta hezkuntza sistemaren etapa guztietan arreta egokia jasotzeko behar diren baliabideak:

*“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak langile espezializatu ibiltarien talde bat izango du beharrian bereziak dituzten ikasleei laguntzeko: logopedak, entzumen eta mintzameneko irakasleak, fisioterapeutak, okupazio-terapeutak... (50.1 artikulua). Aurrekoetz gain, baita ere izan ditzake hezkuntza bereziko laguntzaileak (gaur egun hezkuntza laguntzarako espezialistak) (50.2 artikulua)”.*

Urriaren 17ko 207/2006 Dekretuaren bidez (EHAA 2016/10/30) onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako hezkuntza bereziko ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda.

Apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuak sortzen eta arautzen ditu Hezkuntza bereziko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen hizkuntza eskakizunak.

## I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, xedapen indargabetzaile 1, bi azken xedapen eta eranskin 1 ditu.

1. artikulua eranskinetan jasotako lanpostu zerrendak onartzen ditu.

2. artikulua ezartzen du toki-aldatze lehiaketa izango dela lanpostuak hornitzeko sistema.

3. artikulua dio langileek lanaldi osoko dedikazio erregimena izango dutela.

Xedapen indargabetzaileak indarririk gabe uzten du urriaren 17ko 207/2006 Dekretua, aurreko lanpostu zerrenda onartu zena.

Azken xedapena 1 errekursoak jartzeari buruzkoa da eta bigarrenak dio noiz sartuko den indarrean.

## II.- SARRERA

Batzorde Iraunkorrek 2015eko urriaren 6ko saioan txostena egin zuen "EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratadun langileen 2015/16 ikasturteko LPZ onartzen duen" dekretu proiektuari buruz. Dekretu proiektu hori ez da argitaratu.

Gure irizpenpean jarri den dekretu proiektu honek datorren 2016-17 ikasturterako LPZ ezartzen du, eta aldaketa hauek egiten dizkio aurrez aipatutakoari:

- Artikuluetan xedapen indargabetzaile bat eta amaierako lehen xedapen bat eransten dira, zeintzuen edukia azalduta baitago gorago.
- Eranskinean zutabe bat eransten da, lanpostuak betetzeko behar den titulazioarekin.

Plaza kopurua, plazen kokapena, eta eskatzen diren profilak, aurreko ikasturteko LPZn agertzen direnen berdinak dira. Bestalde, Berrikuntza Zuzendaritzak eginiko memoria (LPZ osagarriari eta premien aurreikuspenari buruzko datuak ematen dituen) termino berberetan mantentzen da.

### III. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu proiektu honetan lantzen diren lanpostu zerrendek eragina dute EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntza emateko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileengan.

Aurreko LPZ 2006-07 ikasturtekoa da, nahiz eta ikasturte bakoitzean plantilla osagarria erabili den ikasleen premiei arreta emateko.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, igeriketako eta ikaskuntza espezifikotako irakasle plazak desagertu egiten dira, eta gizarte langilearena ere kentzekotan da. Beste aldetik, berriak dira Zeinu hizkuntzako interpretearen plazak, LPZ funtzionalean egon arren.

#### Ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen LPZko espezialitateak ikastetxe publikoetan. 2006-07 eta 2016-17 ikasturteak.

| Jomugak                                     | 2006-07    | 2016-17    | Δ Azken    |
|---|------------|------------|------------|
| Fisioterapeuta                              | 27         | 30         | 3          |
| Gizarte langilea (kentzeko)                 | 3          | 3          | 0          |
| Hezkuntza laguntzarako espezialista         | 484        | 600        | 116        |
| Okupazio-terapeuta                          | 7          | 8          | 1          |
| Material transkribatzailea eta egokitzailea | 4          | 4          | 0          |
| Zeinu hizkuntzako interpretea               |            | 4          | 4          |
| Igeriketa irakaslea                         | 1          | 0          | -1         |
| Ikaskuntza berezietako irakaslea            | 1          | 0          | -1         |
| <b>LPZ organikoa guztira</b>                | <b>527</b> | <b>649</b> | <b>122</b> |

Plantilla organikoaren *euskalduntzeari* dagokionez, langileen %91,8k HLEA dute, eta portzentajea %13 hazi da argitaratu zen azken LPZtik.

Plaza horietarako bi hizkuntza eskakizun desberdin daude: Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria, ikasleei arreta euskaraz eman behar zaien plazetarako; eta HE1 (hezkuntzako HE1 mailaren baliokidea), jarduera funtsean gaztelaniaz garatzen duten lanpostuetarako. HLEA eskakizuna, irakasleentzako 47/1993 Dekretuko HE1 eta HE2 mailen artean dago.

**Ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen LPZ organikoan HE2 duten plazen portzentajea ikastetxe publikoetan. 2006-07 eta 2016-17 ikasturteak.**

| Ikastetxe mota                              | 2016-17    |            |             | 2006-07     | $\Delta$ 9 urte |
|---|------------|------------|-------------|-------------|-----------------|
|   | HLEA       | Guztira    | HLEA %      | HLEA %      |                 |
| Fisioterapeuta                              | 30         | 30         | 100         | 96,3        | 3,8             |
| Gizarte langilea (kentzeko)                 | 0          | 3          | 0           | 0,0         | 0,0             |
| Hezkuntza laguntzarako espezialista         | 552        | 600        | 92          | 81,4        | 13,0            |
| Okupazio-terapeuta                          | 8          | 8          | 100         | 85,7        | 16,7            |
| Material transkribatzailea eta egokitzailea | 2          | 4          | 50          | 50,0        | 0,0             |
| Zeinu hizkuntzako interpretea               | 4          | 4          | 100         | -           |                 |
| <b>Guztira</b>                              | <b>596</b> | <b>649</b> | <b>91,8</b> | <b>81,2</b> | <b>13,1</b>     |

LPZ funtzionalari dagokionez, lanaldi osoko plazen multzoan bat gehiago bakarrik dago, eta lanaldi partzialekoak berriz %12 ugaritu dira.

**Ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen funtzionamendu LPZ ikastetxe publikoetan. 2014-15 eta 2015-16 ikasturteak.**

| LPZ funtzionala (lanaldi mota)              | 2014-15    |            | 2015-16    |            |
|---|------------|------------|------------|------------|
|   | Osoa       | Partziala  | Osoa       | Partziala  |
| Fisioterapeuta                              | 30         | 3          | 30         | 4          |
| Hezkuntza laguntzarako espezialista         | 622        | 149        | 620        | 164        |
| Okupazio-terapeuta                          | 8          |            | 8          |            |
| Material transkribatzailea eta egokitzailea | 5          |            | 6          |            |
| Zeinu hizkuntzako interpretea               | 10         | 2          | 12         | 5          |
| <b>Guztira</b>                              | <b>675</b> | <b>154</b> | <b>676</b> | <b>173</b> |

Azken 5 urteotan asko hazi da LPZ honetako figura profesionaletakoren bat esleituta duten h.p.b.dun ikasle kopurua, hurrengo taulan ikusten denez.

Hala ere, baliteke ikasturtean zehar hezkuntza laguntza ematen duten espezialistak ugaritu beharra ikasleen eskolaratze-premia berrien arabera, baina gainerako espezialitateetan ez da igoyerarik espero.

**Irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileak esleituta dituzten eta h.p.b.k dituzten ikasleen bilakaera 2011-13 eta 2015-16 artean.**

|  | 2011-12 | 2012-13 | 2013-14 | 2014-15 | 2015-16 | 4 urte |      |
|--|---------|---------|---------|---------|---------|--------|------|
| Hezkuntza laguntzarako espezialista: Guztira | 2.775   | 3.291   | 3.534   | 3.805   | 3.673   | 898    | 32,4 |
| EAE: sare publikoa                           | 1.483   | 1.724   | 1.827   | 1.947   | 1.830   | 347    | 23,4 |
| Fisioterapia                                 | 486     | 686     | 713     | 733     | 754     | 268    | 55,1 |
| Okupazio-terapia                             | 701     | 802     | 846     | 949     | 955     | 254    | 36,2 |
| Zeinu hizkuntzako interpretea                | 27      | 30      | 27      | 36      | 29      | 2      | 7,4  |

#### IV. BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Batzorde Iraunkor honek berriro adierazi du begi onez ikusten duela LPZ hau argitaratu izana, aurrekoa 2006/07 ikasturtekoa baita. Horrez gain, oniritzia eman dio irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen LPZ organikoan 122 plaza gehiago sartzeari, irakasleen egonkortasuna hobetuko delako. Espero du oraingoan egin beharreko bidea egingo duela, eta ahalik eta azkarren argitaratuko dela.

Dekretu proiektuko datuak banakatuz gero, ikus liteke plantilla organikoa hazi egin dela, eta hurbil dagoela hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen igoerara egokitzeko behar den plantilla funtzionaltik, batez ere "Hezkuntza laguntzarako espezialista" kategorian.

Abenduaren 22ko 2060/95 Errege Dekretuak Komunikazio Bitartekaritzako Goi-mailako Teknikari titulua ezartzen du, Keinu Interprete titulazioa ordezkatzuz (orain arte horrelako lanpostuetarako behar zena). EAEn abenduaren 22ko 242/2015 Dekretuak garatu du curriculumare gure erkidegorako, baina une honetan curriculum hori ez da inongo zentrotan ematen.

Halere, hainbat sektorek uste dute titulazio berriak eskatzen dituen ezagutzak ez direla Keinu Interprete titulaziokoen baliokideak.

Bestalde, 2016-17 ikasturtean lehen aldiz ezarri da Espainiako keinu hizkuntza eta gorren komunitateko gradu ofiziala Unibertsitatean, horrek esan nahi du goi-mailako ikasketak izango direla eta etorkizunean kontuan hartu beharko direla.

Horregatik, ikusirik nolako zalantzak sortu diren titulazio berriaren egokitasunaren inguruan, Kontseiluak proposatzen du eskakizun hori berraztertzea eta orain arte eskatu izan den titulazioa mantentzea, harik eta egoera argitu arte.

HLEA duten langileen portzentajeari dagokionez, lanpostu horietarako eskatzen den maila altuena alegia, igoera handia gertatu da azken urteotan (%13koa hain zuzen), eta hori positiboa dela uste dugu.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2015eko urriaren 25a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA